

Literaturen didaktika

1. Oinarrizko datuak

- **Modulua:** Espezifikoa I
- **Izaera:** Hautazkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Iratxe Retolaza

2. Ikasgaiaren azalpena eta testuingurua

DBHko eta Batxilergoko irakaslegaiak literaturaren irakaskuntzan trebatzea du helburu ikasgaiak, honako ardatz hauek abiapuntutzat hartuta: komunikazio literarioaren eta literatura- zein kultura- edukien inguruan Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumek ezartzen dituzten hezkuntza-parametroak ezagutzea; literatura-kanonaren eta gazte literaturaren inguruko bereizgarri orokor zenbait ezagutzea; komunikazio literarioa irakasteko programazio-eredu, prozedura eta molde zenbait ezagutzea, literatura-testura hurbiltzeko har daitezkeen bide pedagogikoen inguruko hausnarketa kritikoa eginez.

3. Konpetentziak

- DBHko eta Batxilergoko literaturei buruzko curriculumak eta oinarri teorikoak ezagutzea, programa-proposamenak kritikoki aztertu ahal izateko.
- Gazte-literaturaren kontzeptuari eta generoei buruzko hausnarketa kritikoa sustatzea, Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat hautaturiko obra literarioen garrantziaz jabetzeko eta literatura-testu horien askotariko adierazpideak ezagutzeko.
- Ahozko nahiz idatzizko literatura-testura hurbiltzeko hezkuntza-testuinguruetarako jarraibide eta estrategiak ezagutzea, irakurketa literarioa zein sormen literarioa sustatuz.
- Ahozko eta idatzizko testuen ulermena eta ekoizpena hobetzeko jardueren planifikazio eta garapena, baita hizkera literarioaren baliabideak modu sortzailean erabiltzeko jarduerena ere.
- Mendealdeko erreferente, ideia eta kultura-gaiak identifikatzea, gazteek horien berri izan dezaten hezkuntza-sistemaren bitartez.
- Hainbat bideetatik (ikasgela, liburutegia, liburu-dendak, azokak...) gazte-literaturako obra nagusiak ezagutzea, irakurlearen adinaren arabera sailkatu eta mailakatu ahal izateko.

- Gazte-literaturaren eremuko eskolako kanona balioestea, literatura-kanon orokorraren testuinguruan.
- Askotariko baliabide literarioen bidez jasotako ikuspegi kritikoa, esperientzia eta ezagutza estetikoa balioestea, Bigarren Hezkuntzan txertatu ahal izateko.
- Irakaskuntza-jardunean masa-komunikabideen bidez (bereziki telebistaren bidez) zabaldutako informazio-, publizitate-, eta jolas-osagaiak txertatzea, komunikazio-bide horiek literatura-testuetan izan duten eragina ikuspegi kritikoaz aztertu ahal izateko.

4. Ikas-emaitzak

- Hizkuntza eta Literaturaren curriculumaz aztertzea, eta Bigarren Hezkuntzako etapan erabiltzen diren testuliburuak konparatzea, irakasle-jardunaren oinarritzeko langai gisa, eta hezkuntza literarioaren testuinguruan kokatzea.
- Literaturaren irakaskuntza ardatz duten bibliografia-lanak eta baliabideak ezagutzea eta iruzkintzea.
- Azterketa literarioaren alderdiak bereiztea eta literatura-testuen interpretazioak egitean kontuan hartzea.
- Irakurketa eta sormen literarioa sustatzeko hainbat estrategia ezagutzea eta praktikan jartzea.
- Bigarren Hezkuntzan edota Batxilergoan hezkuntza literarioa lantzeko proposamen didaktikoak diseinatzea.

5. Edukiak

1. Literaturaren didaktikarako sarrera: DBHko eta Batxilergoko curriculumaz, eskolako literatura-kanona eta testuliburuak.
2. Eskolako literatura-kanona eta gazte-literatura: irakurgaien aukeraketa.
3. Irakurketa lantzeko jarduerak eta prozedura didaktikoak: ibilbide sinbolikoak, konstelazio literarioak, irakurketa dialogikoak...
4. Literatura-lantegiak: literatura-zirkuluak eta sorkuntza-tailerrak.
5. Literaturaren irakaskuntzarako baliabideak: aldizkariak, biltegiak, antologiak, audio-literatura...
6. Azken produktua: proposamen didaktiko bat sortzea.

6. Metodologia

Ikasgaiak **ikaskuntza autonomo eta esanguratsua** bultzatuko du **metodologia aktibo** baten bidez, eta UEUren online ikas-irakaskuntzarako eredu pedagogikoan oinarrituko da. Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuko ditu, arreta ikaskuntza-prozesuan eta kompetentzietan jartzeko.

7. Tutoretza

Tutoretza-saioen helburua ikasgaiaren inguruko zalantzak argitzea izango da. Bideo-bilera sinkronoak izango dira, eta, ikasgaiak irauten duen bitartean, bi egingo dira gutxienez. Saioen egunak eta ordutegia irakasleak proposatuko ditu Ikasgela Birtualean.

8. Ebaluazioa

Ikasgaien ebaluazioa jarraitua eta hezitzailea izango da. Kalifikazioetarako, gai bakoitzeko zereginak, azken produktua eta parte-hartzea baloratuko dira. Ikasketa-prozesuan zehar eginiko hausnarketa pertsonalei eta talde-dinamikan eginiko ekarpenei ere garrantzia emango zaie.

9. Bibliografia

Oinarrizko bibliografia

- Aguilar, C., Alonso, M.J., Padrós, M. eta Pulido, M.A. (2010). Lectura dialógica y transformación en las Comunidades de Aprendizaje. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado* 24(1), 31-44. or. Universidad de Zaragoza.
- Alonso, I. (2008). *Euskal literatur sistema eta literaturaren didaktika aztergai*. Labayru-BBK, Amorebieta-Etxanoko Udala.
- Askoren artean (2008). *Literatura Terminoen Hiztegia*. Euskaltzaindia.
- Billelabeitia, M. (2022). *Norberak maite duena. Hitza gogoan, irakurketa biziz*. Pamiela.
- Buttler, M.B. & Massano, M.C. (2015). Los círculos literario sen los cursos de adultos de ILE. *Puertas Abiertas*, 11. Escuela de Lenguas.
- Jover, G. (2008). Se está haciendo cada vez más tarde: por una literatura sin fronteras. *Textos literarios y contextos escolares: la escuela en la literatura y la literatura en la escuela* (149-178. or.). Graó.
- Moreno, V. (2007). *Ikasleak irakurzaletzen ahotsa, sentimendua eta sormena erabiliz*. Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua.
- 71/2022 FORU DEKRETUA, ekainaren 29koa, Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena. Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua.
- 72/2022 FORU DEKRETUA, ekainaren 29koa, Nafarroako Foru Komunitateko Batxilergoaren etapako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena. Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua.
- 76/2023 dekretua, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza Saila.

77/2023 dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza Saila.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Alonso, I. (2010). *Erdigune literarioak irakaskuntzan*. UPV/EHU.

Apalategi, U. (2011). Irakurzaletasuna hezkuntza-sistemaren helburu? *EGAN* 4, 99-119. or.

Bordons, G. & Días-Plaja, A. (koord.). (2006). *Enseñar literatura en secundaria*. Graó.

Colomer, T. (2005). *Andar entre libros*. FCE.

Colomer, T. (2005). *Siete llaves para valorar las historias infantiles*. Papeles de la fundación Germán Sánchez Ruipérez.

Colomer, T. (2009). *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Síntesis.

Delmiro Coto, B. (2002). *La escritura creativa en las aulas*. Graó.

Etxaniz, X. (1987). *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Pamiela.

Hernández Llona, X. (2021). *Literaturaren didaktikaren erronkak XXI. mendeko Bigarren Hezkuntzan*. Labayru, Amorebieta-Etxano.

Jover, G. (2007). *Un mundo por leer: educación, adolescentes y literatura*. Octaedro.

Landa, M. (2018). *Txikiaren handitasuna literaturan*. Erein.

Lluch, G. (2010). *Cómo seleccionar libros para niños y jóvenes*. Trea.

Lluch, G. (koord., 2010). *Las lecturas de los jóvenes. Un nuevo lector para un nuevo siglo*. Anthropos.

Lopez Gaseni, M. & Etxaniz, M. (2005). *90eko hamarkadako euskal Haur eta Gazte Literatura*. Pamiela.

Mendoza Fillola, A. (2003). *Didáctica de la lengua y la literatura*. Pearson.

Moreno, V. (2001). *Irakurketa, liburuak eta irakurtzera bultzatzea. Hausnarketak eta proposamenak*. Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua.

Rodari, G. (1982). *Gramática de la fantasía*. Cincen-Kapelusz.

Ruiz Bikandi, U. (koord., 2011). *Didáctica de la lengua castellana y la literatura*. Graó.

Aldizkari eta webgune interesgarriak

Behinola aldizkaria (Galtzagorri Elkarteak): <https://www.galtzagorri.eus/eu/behinola>

Constelaciones literarias (Guadalupe Jover): <https://sites.google.com/site/educacionliterariaensecundar/>

Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Masterra (online)
<https://www.goi-institutua.eus>



: goimailako
:
:
:
: online
:
: institutua

Eskolako literatur kanona (Nafarroako Gobernua):

<https://sites.google.com/educacion.navarra.es/eskolako-literatur-kanona/>

Haur eta Gazte Literatura Irakur Gida (Mondragon Unibertsitatea):

<https://www.mondragon.edu/eu/aldizkariak-argitalpenak/haur-eta-gazte-literatura-irakur-gida>

Irakurgunea (Eusko Jaurlaritza): <https://irakurgune.euskadi.eus/eu/inicio>